XEDAPEN OROKORRAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

234

472/2013DEKRETUA, abenduaren 30ekoa, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren estatistika-organo espezifikoa sortzekoa eta haren antolaketa eta funtzionamendua zehaztekoa.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuak, –martxoaren 1eko 8/2013 Dekretuaren bidez aldatuta– hauxe xedatzen du: batetik, Ingurumena eta Lurralde Politika Saila eta, bestetik, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila sortzea. Azken horri esleitzen zitzaizkion, hain zuzen, jada desagertutako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren zenbait funtzio eta jardun-arlo.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 191/2013 Dekretuak, –apirilaren 24ko EHAA, 78 zk.–, bigarren xedapen iragankorraren bidez, aukera ematen du desagertutako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren estatistika-organo espezifikoak aldi baterako jarraitzeko, dekretu hau onartu arte. Organo horrek bere gain hartu ditu otsailaren 13ko 32/1996 Dekretuaren bidez sortutako estatistika-organo espezifikoaren funtzioak, bai eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko estatistika-organo espezifikoa sortu eta arautzen duen martxoaren 16ko 88/2010 Dekretuan, Etxebizitza Sailburuordetzarekin lotutako funtzioak.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren egitura organiko eta funtzional berri hori dela eta, aipatutako sailen estatistika-organo espezifikoak sortzeko arauak berrikusi behar dira –32/1996 Dekretua, otsailaren 13koa, eta 88/2010 Dekretua, martxoaren 16koa, hurrenez hurren–. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko araudiak, estatistika-arloan, xedatzen du estatistika-organo espezifiko bat bakarrik egongo dela sail bakoitzeko, eta egungo egoeran, aipatutako dekretuetan adierazitako arloak zein bi estatistika-organo espezifiko horiek dituzten giza baliabideak bildu egin behar direla Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren berezko estatistika-organo espezifikoan.

Saileko estatistika-organo espezifiko berri hori sortzea erabakita, organoa arautzeko parametroak izango dira Euskal Autonomia Erkidegoaren estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legean xedatutako esparruan adierazitakoak, lege horren 26. artikuluan xedatzen baita estatistika-organo espezifikoa eratuta duten Jaurlaritzako Sailak arduratuko direla, besteak beste, autonomia-erkidegoaren estatistika-jardunaz. Halaber, lege-xedapen horien barruan, estatistika-organo espezifiko berriaren antolaketa eta funtzionamendua arautzeko, Jaurlaritzako sailetako estatistika-organo espezifikoak arautzen dituen ekainaren 22ko 180/1993 Dekretuan, –hain zuzen, organo horien sorrera, antolaketa eta funtzionamendua– xedatutakoari jarraitzen zaio. Dekretu horretan xedatzen da, hain zuzen, dekretuaren aginduei jarraiki eratutakoak soilik joko direla estatistika-organo espezifikotzat.

Saileko estatistika-organo espezifiko berri horren arauketa Euskal Autonomia Erkidegoko apirilaren 23ko 4/1986 Estatistika Legearen eremuan dago; batez ere kontuan hartzen baldin badugu 26. artikuluan jartzen duela ezen autonomia-erkidegoko estatistika-arloko lanak besteak beste berariazko estatistika-organo bat osatua duten sailek egingo dutela. Era berean, estatistika-organo espezifiko berriaren antolakuntzak eta funtzionamenduak, gainera, ekainaren 22ko 180/1993 Dekretuan egindako ildoari jarraitzen diote, hor baitaude araututa Jaurlaritzako sailetako estatistika-organo espezifikoak, eta, zehazki, hor baitago araututa nola sortu eta antolatu behar diren eta

funtzionatu behar duten; eta, hor jasota dagoenez, dekretuan bertan jartzen duen bezala osatzen direnak soilik izango dira estatistika-organo espezifiko.

Eskakizun formalei dagokienez, ekainaren 22ko 180/1993 Dekretuak xedatzen du estatistika-organo espezifikoak dekretu bidez sortuko direla, eta kide bakarreko organoak izango direla, goi-kargu baten edo sailean koordinazio-eginkizunak betetzen dituen edozein organoren mendekoak. Kasu honetan, estatistika-organo espezifikoa zerbitzu-zuzendariaren mende egongo dela xedatu da, hori baita aipatutako koordinazio-eginkizunak betetzen dituen kargua.

Ildo horretatik, Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legean zehaztutako prozedurari jarraiki egin dira dekreturako izapideak, 180/1993 Dekretuan xedatutako Euskal Estatistika Batzordearen derrigorrezko txostena jaso ondoren, eta sailaren jarduera-esparru berriarekin lotutako beharrak eta jarduera-proiektuak kontuan hartuta.

Hori guztia dela-eta, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Euskal Estatistika Batzordearen txostena jaso ondoren, eta Gobernu Kontseiluak 2013ko abenduaren 30ean egindako bilkuran aztertu eta onetsita,

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Dekretu honen xedea da Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren estatistika-organo espezifikoa sortzea, bai eta haren antolaketa- eta funtzionamendu-arauak zehaztea ere, Jaurlaritzako sailen estatistika-organo espezifikoak arautzen dituen ekainaren 22ko 180/1993 Dekretuaren xedapenei jarraikiz.

2. artikulua.– Antolaketa organikoa.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren estatistika-organo espezifikoa kide bakarreko organoa da, eta zerbitzu-zuzendariaren mende egongo da zuzenean.

3. artikulua.– Eskumenak.

1.– Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko estatistika-organo espezifikoa I. klaseko organo gisa eratzen da, haren eskumenen ondorioetarako. Hori dela eta, 180/1993 Dekretuak, ekainaren 22koak, mota horretako estatistika-organo espezifikoei esleitzen dizkien eskumenak eta ahalmenak izango ditu, eta zehazki, honako hauek:

a) Sailaren estatistika-jarduera planifikatzea, koordinatzea eta bultzatzea, eta beste erakunde batzuekin erakunde-harremanak izatea, sailari dagozkion estatistika-eginkizunak direla eta, betiere 4/1986 Legearen 29.c) eta d) artikuluetan xedatutakoa betez.

b) Sailaren estatistika-plana egitea, Estatistikaren Euskal Planaren Proiektuaren oinarri izateko, sailaren estatistikei dagokienez.

c) Euskal Estatistika Erakundearekin lankidetzan aritzea Estatistikaren Euskal Plana eta Urteko Programa Estatistikoak egiteko.

d) Estatistikaren Euskal Planean eta/edo Urteko Programa Estatistikoetan adierazitako estatistikak edo estatistika-faseak egitea, haietan ezarritako eran.

e) Estatistikaren Euskal Planean edo Urteko Estatistika Programetan sartu gabeko estatistika propioak egitea, 4/1986 Legeko 8.1. artikuluan ezarritako eran.

f) Bere eskumenen baitako estatistikak egiteko informazioa lortzea, 4/1986 Legearen 9. artikulutik 16. artikulura xedatutako eran.

g) Artikulu honetako d) idatzi-zatian adierazitako estatistiken emaitzak eta Estatistikaren Euskal Planean zein Urteko Programa Estatistikoetan zehaztutakoak argitaratu eta jakitera ematea, edukiaren berri Euskal Estatistika Erakundeari jakinarazi ondoren.

h) Bere sektore-esparruko fitxategi/direktorio estatistikoak egiten eta eguneratzen parte hartzea, 4/1986 Legearen 29.i) artikuluan xedatutakoari jarraiki.

i) 180/1993 Dekretuaren 7.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak interesgarritzat jotako estatistika-proiektuak egitea.

2.– Aurreko idatzi-zatian adierazitakoaren harira, hauek dira Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren estatistika-organo espezifikoaren jarduera-arloak:

a) Lan-harremanak; enplegu-politikak, gizarteratzearekin eta laneratzearekin zein pobreziaren prebentzioarekin lotutakoak barne; ekonomia soziala eta enpresen gizarte-erantzukizuna.

b) Gizarte-zerbitzuak, familia, haurrak eta komunitate-garapena, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen diren immigrazio-politikekin lotutakoak barne.

c) Etxebizitza, arkitektura, eraikuntza, garapen iraunkorra, eraikuntzaren kalitatea eta hirigintza.

3.– Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko estatistika-organo espezifikoak baliatuko ditu bere eskumenak sailaren zein sailera atxikitako erakundeen estatistika-premietarako, bai estatistikak datu estatistikoetan oinarrituta egin behar badira, bai datu administratiboetan oinarrituta egin behar badira.

4. artikulua.– Funtzionamendua.

1.– Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko estatistika-organo espezifikoak, 180/1993 Dekretuko 4. artikuluan jasotako Estatistika Organo Espezifikoen Erregistroan inskribatu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko estatistikarekin lotutako jardunari ekingo dio, estatistikari buruzko legedia betez –eta, bereziki, estatistika-sekretuari buruzkoa–, beste organo eta erakunde batzuekin dituen harremanei dagokienez, sailari atxikitakoei barne.

2.– Jardunean, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren estatistika-organo espezifikoak barne-antolaketa egin beharko du dekretu honetako 3. artikuluko 2. idatzi-zatian adierazitako jarduera-arloak betetzeko moduan.

3.– Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko estatistika-organo espezifikoak saileko gainerako organo eta erakundeek legez eta zehazki esleituta dituzten estatistika-eskumenak errespetatuko ditu.

4.– Aurreko hori hala izanda ere, organo eta erakunde horiek estatistika-organo espezifikoari emango diote hark bere eskumenak betetzeko eskatutako informazioa. Horrez gain, lankidetzan arituko dira organo horrekin, agintzen zaizkion azterketak, estatistikak, txostenak eta ikerketa-lanak egiten, beren eskumenekin zerikusirik badute.

5.– Bere eskumenak gauzatzean, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko estatistika-organo espezifikoak kontuan har ditzake organo horretara atxikita ez dauden langileak, saileko langileak zein sailaren beste erakundeetakoak izan. Langile horiek, apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 15. artikuluan xedatutakoari jarraiki, estatistika-eragiketekin lotuta egingo duten lanaren zatiari dagokionez, estatistika-langiletzat hartuko dira, eta sailaren estatistika-organo espezifikoaren irizpide

teknikoak bete beharko dituzte; batez ere, jardunean eskuratzen duten informazio guztiari buruzko estatistika-sekretua gordetzearena.

5. artikulua.– Administrazio-baliabideak.

1.– Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua eskudun izango da Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren estatistika-organo espezifikoak emandako egintzen aurka jarritako errekurtsoak aztertu eta ebazteko.

2.– Errekurtso horien ebazpenerako, Euskal Estatistika Erakundearen derrigorrezko txostena izan beharko da lehenbizi.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– Sailaren estatistika-plana.

Sailaren estatistika-plan espezifikoa onartu bitartean, plan horren pareko izango dira unean uneko indarreko Euskal Estatistika Planean eta/edo Urteko Estatistika Programetan sartutako eragiketak, non Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko estatistika-organo espezifikoak parte hartzen duen.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Atxiki gabeko langileekin egin beharreko estatistikak.

Dekretu honetako 4. artikuluan adierazitako xedapenek saileko eta haren erakundeetako langile guztiei eragingo dizkiete, estatistika hauetan parte hartzen badute:

a) Lanaren arloko estatistikak.

b) Lesio profesionalei buruzko estatistikak.

c) DBE/EPO/GLL prestazio-sistemaren onuradunei buruzko urteko estatistika.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Jarduera jarraitzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioko sailak sortu, kendu edo aldatuz gero eta/edo haien eginkizunetan eta jarduera-arloetan aldaketak egonez gero, eta horrek eragina badu Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko jardueran, neurri horiek eragindako sailek, ados jarrita, organo horrek egiten duen estatistika-jarduerak jarraituko duela bermatzeko behar diren neurri iragankorrak erabaki ahal izango dituzte, Euskal Estatistika Planean eta/edo Urteko Estatistika Planen esparruan.

ALDI BATERAKO XEDAPENA

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioko estatistika-organo espezifikoen erregistroan inskribatzen denean, saileko estatistika-organo espezifikora joango dira, atxikita, orain arte Enplegu eta Gizarte Politika Sailean egin izan diren estatistika-lan guztiak.

2.– Lan horrekin batera, orain arte estatistika-lanetara atxikita egon diren baliabideak eta bitartekoak ere joango dira atxikita.

3.– Dekretuan jartzen duen bezala egingo da atxikipena.

LEHENENGO XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da 32/1996 Dekretua, otsailaren 13koa, Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren estatistika-organo espezifikoa sortzekoa.

BIGARREN XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Azaroaren 19ko 448/2013 Dekretuko xedapen indargabetzaileko bigarren lerrokadan xedaturikoaren arabera (dekretu horren arabera sortu da Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko estatistika-organo espezifikoa eta bertan dago zehazturik nola antolatu behar den eta funtzionatu behar duen), dekretu hau indarrean jartzen denean, amaituta geratuko da martxoaren 16ko 88/2010 Dekretu indargabetuaren indarraldi luzatua. 88/2010 Dekretu horrek sortu eta arautu zuen Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko estatistika-organo espezifikoa.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Garatzeko araudia.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuari eskumena ematen zaio Dekretu honetan ezarritakoa garatzeko eta gauzatzeko behar diren xedapenak emateko.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Indarrean sartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko abenduaren 30ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
JUAN MARÍA ABURTO RIQUE.